

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZALDUONDOKO UDALA

Idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzea

Zalduondoko Udaleko idazkari-kontuhartzaileak jakinarazi du bere lanpostua uzteko asmoa daukala 2016ko martxoaren 2an.

Ikusirik uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuak, gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzkoak, xedatutakoaren arabera lanpostu hori gaikuntza nazionala duten toki administrazioko funtzionarioentzat gordeta dagoela, idazkaritza-kontuhartzailera azpieskalakoak diren funtzionarioentzat.

Kontuan hartuz beharrezkoa dela lanpostu hori betetzea, udalaren jardura gelditzea ekiditeko.

Ikusirik uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuak, gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzkoak, 30.etik 34.era arteko artikuluetan xedatutakoa,

Aintzat hartuta apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21.1.h) artikuluan xedatutakoa.

Ebatzi dut

LEHENENGOA. Hamar (10) egun balioduneko epea irekitzea, dagokion iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunetik hasita, hautagaiek eskaerak egiteko; xedea da udal honetako idazkaritza-kontuhartzailera plaza behin-behineko izaeraz betetzea. Eskaerak dekretu honi erantsita dagoen ereduaren arabera egin behar dira.

Gaikuntza nazionala daukan toki administrazioko funtzionario bat izendatuko da, eta lanpostuaren azpieskala eta kategoria bereko hautagaiek izango dute lehentasuna, hori behar den moduan egiaztatuko delarik.

Hautagai bat baino gehiago aurkezten badira, honako hau proposatuko da izendatua izateko hautagaitzat: puntu gehien lortu duena parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak argitaratutako azken merezimendu lehiaketan.

Bigarren. Jakinarazten da idazkari-kontuhartzaile lanpostuak 3. hizkuntza eskakizuna duela esleitura, derrigortasun datarekin. Lanaldia ehuneko hirurogeikoa izango da.

Hirugarrena. Arabako Foru Aldundiari hautatutako hautagaiaren behin-behineko izendapena proposatzea.

Laugarrena. Hautagairik aurkezten ez bada, aurrera egingo du gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzko Errege Dekretuaren 30. artikulua eta hurrengoek xedatutako prozedurak (1732/1994 Errege Dekretua, uztailaren 29koa).

Bosgarrena. Udalbatzari ebazpen honen berri ematea hurrengo osoko bilkuran.

Zalduondo, 2016ko otsailaren 16a

Lehendakaria

GUSTAVO FERNANDEZ VILLATE

Eranskina

.....jaunak/andreak (NANa:; jaki-narazpenetarako helbidea:; herria.....telefono zenbakia:), zeinak, gaikuntza nazionalako funtzionarioa izanik, azpieskalakoa, egun toki erakundean lanpostua betetzen baitu, ondoko hau

Adierazten du:

Jakin duela Zalduondoko Udalaren idazkari-kontuhartzaile lanpostua hutsik dagoela, ALHAOn (....zk.) argitaratutako iragarkiaren bidez, eta aukera dagoela lanpostu hori aldi baterako betetzeko, bat etorritik uztailearen 29ko 1732/1994 Errege Dekretuak, gaikuntza nazionalako toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzkoak, 30. artikuluan xedatutakoarekin.

Uste duela betetzen dituela lanpostu horri dagozkion zereginak zuzen betetzeko beharrezko eskakizunak, eta, indarrean dagoen legeriarekin bat etorritik, eta bidezko diren izapideak bete eta gero.

Eskatzen du:

Zalduondoko Udaleko idazkari-kontuhartzaitza lanpostua behin-behineko izendapen bidez betetzeko prozeduran parte hartzea.

Honekin batera, ondoko agiri hauek aurkeztu dira:

- NANaren fotokopia
- Estatu mailako gaikuntza duen funtzionarioa dela egiaztatzen duen agiria.
- 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatua duela ziurtatzen duen agiria.

....., 2016koaren(a)

Izenpea:....."